

EcoEuskadi 2020 tailer parte hartzailea Legazpin

Emaitzen *behin betiko* agiria



Agiri hau Tokiko Agenda 21eko Foroarekin **Legazpin** ospatu den EcoEuskadi tailer parte hartzailearen akta da. Tailerra, hitz gutxitan, honetan laburbiltzen da:

- **Eguna eta lekua:** 2011ko martxoaren 24an, osteguna, Legazpiko udaletxeko Batzar Aretoan.
- **Ordua:** 18:30etik 20:00etara.
- **Erakunde sustatzailea:** Legazpiko Udala, Udalsarea 21arekin elkarlanean.
- **Parte hartzaileak:** udalerriko 13 pertsona, ingurumenaren iraunkortasunarekin konpromisoa duen eta udalerriko Tokiko Agenda 21eko Foroan ibilbidea egin duen talde anitza.
- **Aztertu diren gaiak:**
 - 2020: etorkizunari buruzko ikuspegia.
 - 2. gakoa. Energia-mendekotasuna eta klima aldaketa.

Eta tailerraren xehetasunak eta emaitzak ondoko **aurkibidean** antolatzen dira:

1. Parte hartu duten pertsonak.
2. 2020: etorkizunari buruzko ikuspegia: Zer esan nahi du 2020an Euskadi iraunkorragoa izatea?
3. 2. gakoa. Energia-mendekotasuna eta klima aldaketa. Nola heldu gaiari?
4. Hurrengo urratsak eta taldeari eskerrak ematea.

Parte hartu duten **pertsonak**

Honako hauek dira Legazpiko Agenda 21eko Foroaren tailerrean parte hartu duten pertsonak:

Izena	Erakundea
Eugenio Gil	Korosti zikloturistak
Floren Gutierrez	Legazpiko bizilaguna
Begoña Santillan	Iratzarri etxekoandreen elkarte
Arantxa Ibarreta	Iratzarri etxekoandreen elkarte
Juncal Fernandez	Legazpiko bizilaguna
Manuel Fernandez	Nagusilan elkarte
M ^a Jose Cantero	Nagusilan elkarte
Joxan Auzmendi	Legazpiko Ingurugelako teknikaria
Asier Ezama	Haztegi Ikastola
Pedro Barroso	Nagusilan elkarte
Jose Ramón Hernández	Nagusilan elkarte
Sotero Plazaola	Legazpiko alkatea
Inma Hernandez	Legazpiko Udaleko Agenda 21eko teknikaria
Zorione Aierbe eta Iciar Montejo	Prometea, S.C. enpresako dinamizatzaileak

OHARRA: Jon Erramun Uribeetxebarria, Javier Iraeta eta Vicente Garmendia zinegotziek ezin dutela etorri adierazi dute.

Taldea anitza da, Legazpiko Agenda 21eko Foroan parte hartu duena. EcoEuskadi 2020 ikuspegiaren gainean pentsatzeko, eztabaidatzeko eta proposamenak egiteko bilera bat egiteko proposamena begi onez hartu duen taldea. Horregatik, eskerrik asko!
Eskerrik asko erronka jaso duzuelako!

2020: etorkizunari buruzko ikuspegia. Zer esan nahi du 2020an Euskadi iraunkorragoa izatea?

Sotero Plazaola alkateak eta Inma Hernandez udaletxeko Agenda 21eko teknikariak ongi etorria eman eta azalpenak eman ondoren, taldeak EcoEuskadi 2020 aztertzeari ekin dio.



Gure lehenengo lana Euskadirako nahi dugun etorkizunaz pentsatzea izan da; 2020. urteraino joan gara 2020ko Euskadiren Garapen Iraunkorraren estrategiarako helburu bat irudikatzen.


Horrela, talde-dinamikan oinarrituta, pertsona bakoitzak ondoko galdera erantzun du:

Zer esan nahi du 2020an Euskadi iraunkorragoa izatea?


Taldeko kideentzat Euskadi 2020 ondoren zehazten den Euskadi esan nahi du:




• Kohesionatua gizartearen aldetik

- 
- KOHESIONATUA. Herritarren arteko errespetuan eta tolerantzian oinarrituta.
 - GIZARTEAREN ALDETIK BIDEZKOAGOA eta gizarte politika argiekin. Ez ditzala 400 eta 2.200 euroko pentsioak izan.
 - INTEGRATUAGOA ETA INTEGRATZAILEAGOA. Euskadi aiton-amonekin bizitza eta esperientzia partekatzen duten familia gazteen zentro handi bat izan dadila. Eta minusbaliotasun mota guztietarako laguntzak egon daitezela.
 - SOLIDARIOA. Solidarioa bertakoekin eta mundu osoko pertsoekin eta planetako bizidun guztiekin.
 - ERRESPETUZ BETEA ETA TOLERANTEA gaztetasunean.

• Herritar langileekin

- 
- JAKITUNA. Gure parte hartze handiagoarekin eta datozen belaunaldiak jakitunak eta parte hartzaileak izan daitezela segurtatu. MODERNOA.
 - KOHERENTEA pentsamenduaren (esaten duguna) eta ekintzaren aldetik. Ez teoriarik geratu eta ekin.
 - BERRITZAILEA. Egunetik egunera berritzeko gogoia izatea Euskadi perfektua lortzeko.
 - PRESTATUA.

• Sentikorra ingurumenarekin eta arduratsua baliabideekin

- 
- EKOLOGIKOA baliabide guztiekin.
 - BERDEA. Asfaltoak irentsi ez gaitzala.
 - GARBIAGOA. Gasolioarekin dabiltzan makinari gabe, tximiniari gabe, lantegi modernoagoekin.
 - APAINDURA GUTXIKOA. Behar duena bakarrik kontsumitzen duena, zarrastelkeria baztertuta.
 - ARRAZIONALA. Behar duena erabiliko duena baina gutxiago beharko duena.
 - ARDURATSUA ingurumen gaitetan. Prestakuntza ikastetxeetatik hasiz; enpresei arauak bete ditzatela exijituz.
 - IGURUMENAREN ALDEKO POLITIKEKIN.
 - EZ HAIN KONTSUMISTA eta kontsumo arduratsuekin: behar dena, produktu berdeak, bidezko merkataritza, gertuko produktuak,...
 - Energiaren MENDE egongo ez dena.



• Ekonomia eta zerbitzu funtzional eta eraginkorrekin



- GARRAIO PUBLIKOA, DOAKOA ETA ELEKTRIKOA. Garraio publiko eskuragarria, doakoa; eta auto denak elektrikoak, gero eta auto gutxiago egongo dela pentsatuz.
- FUNTZIONALA osasunean, zerbitzuetan, ekonomian.
- INDUSTRIA ARDURATSUA. Ondo ordaindutako lana lortzea ahalbidetuko duten enpresak indartu. Kanpora joan beharra izan ez dezagun.
- OSASUN AURRERATUA. Medizina ospitaleratze gutxiago izatea lor dezala eta norbanakoaren arretan maila altua lortzea.

• Politikatik eta parte hartze sozialetik



- DEMOKRATIKOA. Parte hartzailea. (*DEMOKRATIKOA*).
- PARTE HARTZE SOZIALA politika publikoak diseinatzeko eta martxan jartzeko.
- PARTE HARTZEA sistema gisa.
- NAZIO moduan pentsatu.
- AGINTARI POLITIKO prestatuago eta konprometituagoekin.



Taldeko pertsonak egin dituzten ekarpen desberdinak batuz eraiki dugun 2020ko ikuspegia.

Segidan, Euskadi 2020ko Garapen iraunkorrerako Estrategia egiteko prozesuan identifikatutako 8 iraunkortasun-gakoetatik 1 landu dugu. Udalak proposatuta, 2. gakoari buruz hausnartzea eta horren gaineko ekarpenak egitea izan da helburua:

- **2. gakoa. Mendekotasun energetikoa eta klima aldaketa.**

2. gakoa. Mendekotasun energetikoa eta klima aldaketa. Nola heldu gaiari?



Gako honi buruzko Euskadiko datu nagusiak ezagutu ondoren, eta dokumentazio osagarria eskuartean dugula, lantaldeak erronka horri heltzeko Euskadik lagungarri izango dituen jarduera-lerroak zehaztu ditu.

Horrela, talde-dinamikaren emaitza gisa, Legazpiko taldearen ekarpenak ondokoak izan dira, eremuen eta gaien arabera taldekatuta:

Energia kontsumo txikiagoa eta energia eraginkortasun handiagoa.

- Aurrezki eta eraginkortasun irizpideak sartu produktuak ekoizteko eta erosteko orduan eta zerbitzuak kontratatzerakoan:
 - Erosketa berdea, arduratsua.
 - Energia eraginkortasun txikiko etxetresna elektrikoaren eta bestelako aparatuen salmenta arautu eta debekatu.
- Udal kudeaketa eraginkorra: espazio publikoetan gaueko argiak gutxitu.
- Industrialdeetan kogenerazioa sustatu.
- Energia kontsumitzeagatikotasun tasak arautu (elektrizitatea, gasa,...): gehiegizko kontsumoak zigortuko dituzten tarifa progresiboak ezarri.
- Etxeko energia hobeto planifikatu, kontsumoa murriztu ahal izateko:
 - Berogailuaren eta aire girotuaren erabilera iraunkorrerako azturak hartu.
 - Kogenerazioko etxeko galdarak sustatu.
 - Energiaren kontsumoari mugak jarri (adibidez Japonian aztertzen ari den ekimena: bertan herritar talde bat prest agertu da energiaren kontsumoa murrizteko, Fukushima-aren istripua eta gero), "etxe bakoitzeko gehienezko energia-kuota" ezarri.
- Murriztea, berrerabiltzea eta birziklatzea lehenetsi (hondakinak erretzeari ez).



Energia berriztagarriak sustatu

- Bilatu, ikertu eta berritu, Euskadin dugun energia berriztagarriaz baliatzeko eta energia ekoizteko eta aprobetxatzeko modu seguruak, merkeak eta iraunkorrak garatu. Helburua geure burua hornitzea eta mendekotasuna saihestea da:
 - Ekoizpen hedatsua: hidraulika txikiak (ur emaria manten dadila zainduz), eoliko txikiak, eguzki fotovoltaikoa eta eguzki termikoa.
 - Tokiko produkzioa eta bigarren generazioko bioerregaiak erabili (egurra erabiliz eta ez animalientzako janariak).
 - Elektrizitatearen tokiko produkzioa, biomasa erabiliz (Suedian egiten den moduan, pinu sailak erabiliz).
 - Hidrogenoa erabili.
- Garoña eta Pasaia-ko ikatz zentrala itxi.

Tokiko produkzioa eta janariak

- Bertako nekazaritza sustatu: bertako produktuak ekoiztu eta kontsumitu.
- Elika-katearen behealdeko produktuetan aberatsa den dieta sustatu (landare jatorriko janariak).


Administrazioaren erantzukizun politikoa eta eredugarritasuna

- Sentsibilitate politiko guztien artean adostasuna lortu, gai horiek alderdien arteko gatazka sor ez dezaten.
- Administrazioak eta agintariak eredu izan daitezela.

Planifikazioa, hirigintza eta garraio iraunkorra

- Eraikuntza bioklimatikoak. Material iraunkorrek eta lur gutxiago erabiliz eraikinak jasotzea bultzatu.
- Garraio publiko eta/edo kolektiboa eraginkorra eta eskuragarria:
 - Alde batetik bestera joateko beharra gutxitu.
 - Burdinbide sare arrazionala.
 - Oinezkoak eta bizikletak lehenetsi eta mugimenduaren energiaz baliatu.
 - Kontsumo txikiko barne-errekuntzako motorrak. Renove plana kutsatzen ez duen energia erabiltzen duten ibilgailuentzako (elektrikoak baldin badira, energia-iturri berriztagarria izan dadila). Errekuntzako ibilgailuei bizi-muga bat jarri.
- Herritarrak kontzientziatu garraio publikoa gehiago erabiltzeko, gutxiago kontaminatzeko eta energia gehiago aurrezteko. Ibilgailu pribatua izateak duen kostu errealaren berri eman.

Eta horrela, ideiak emanez, hausnarketak argituz eta proposamenak batuz, Legazpiko Agenda 21eko Foroak bere aletxoak jarri du EcoEuskadi 2020 proiektuan.



Hurrengo urratsak eta eskerrak ematea taldeari

Taldearen ordu eta erdiko lana amaitzear dago; bilerari amaiera emateko ordua iritsi da eta, hori baino lehen, emango diren hurrengo urratsen berri eman dugu.

- Epe motzean, dinamizazio-taldeak tailer honetan jaso diren emaitzak jasoko ditu **akta edo dokumentu** batean. Dokumentu hori tailerrean parte hartu duten kide guztiei bidaliko zaie zehaztuko den epe batean onar dezaten.
- Azkeneko agiria IHOBera bidaliko da, EcoEuskadi 2020ko idazkaritza teknikora. Dokumentu hori **aintzat hartuko da** Euskadiko Garapen Iraunkorrerako Estrategia lantzeko prozesuan, parte hartu duten beste agenteek –beste udalerrietako tailerrak, gazteak, lantaldeak, enpresa-erakundeak, Udalsarea 21eko batzorde teknikoa...– egin dituzten ekarpenekin batera . Gainera, dokumentua argitara emango da www.ecoeuskadi2020.net Web orrian.
- EcoEuskadi 2020, Euskadiren Garapen Iraunkorraren estrategia, **2011ko ekainaren 7an** aurkeztuko zaio euskal gizarteari. Hortik aurrera, Euskadik eta euskal gizarteak erronka berri bat izango dute eskuartean: EcoEuskadi 2020 proiektuaren ildo nagusiak eta aholkuak egi bihurtzea.

Bukatzeko eskerrak eman nahi dizkiegu lan-saio honetan parte hartu duten Legazpiko pertsona guztiei.



Eskerrik asko

... eskainitako denborarengatik
... hausnartzeagatik
... parte hartzeagatik
... eta Legazpitik EcoEuskadi 2020 proiektuari egin dizkiozuen ekarpenengatik.

Eskerrik asko helburu bat jartzeagatik eta gure trenari forma emateagatik!

